Arbolik ezta, adar igařik eztunik. (AN. Basabu-
rúa).

Iyerik ezta nurtur igařa eztuenik. (G. Ondárbia).
No hay árbol sin rama seca, ni hombre sin defecto.

Okin beriaak, baya zuri. (G. Astigáraga).

Tienda nueva, cosas bonitas.

*Nik jotzen dudan soñuakin dantzatuko dira gau-
zak.* (G. Astigáraga).

Los trabajos irán al paso que yo vaya.

Ori dek pasaitarana egitea. (G. Astigáraga.)

Pillar la delantera para echarle en cara algo, que él le podía decir.

Lengo atsoak ere, mayatzian alkia eŕe zun. (G. Astigáraga).

La vieja tuvo que quemar su banco en Mayo. (Sentido material).

También en Mayo sabe arreciar el frío. (Sentido moral).

Mayatza erdi otzak eta beste erdi goseak il emen zun. (AN. Basaburua).

A mayo le quitó la mitad de la vida el frío, y la otra mitad el hambre.

*Pazkoak il-bera,
iñuteriz il-beŕi:
ire amak eztik
ez gose ta ez egaŕi.* (G. Astigáraga).

Por Pascua, menguante; por Carnaval, luna nueva; tu madre no tiene ni hambre ni sed. (Sentido material). Que las Pascuas caen en plenilunio. (Sentido moral):

Aldiz, aldiz, zapatarie zaldiz. (AN. Basaburua).

Aldixka, aldixka, zapataria zaldizka. (AN. (G. Astigáraga)).

Hasta el más pobre ha de hechar una cana al aire.

Xaguak ere umiak eta oŕek ere bai. (G. Astigáraga).

También el ratón tiene sus crías, y también esa. (Aur asko dituen andre txikia deneko).

Manduak umerik ez,

beařik ere ez. (G. Astigáraga).

Los padres malos, no necesitan hijos.

Mai batan miñe ta bi sosen trapue. (Lekaroz).

Ardit baten pupua ta txanpon baten trapua. (G.

Astigáraga).

Por poco te quejas. (Sentido moral).

Olaberítakoak Meza arápatu ta Zalditegikoak uts egin. (G. Astigáraga).

Los más lejanos llegan a misa, los más cercanos no alcanzan.

Elbian ostikadak boteko likek ori. (Astigáraga).

La patada de una mosca tiraría a ese.

Erioak begigorri. (Astigáraga, Basabe).

La muerte tiene ojos rojos. (Sentido material). En el peligro de muerte se agarra al hierro candente.

Alperá beti nekean, mozkoña beti egařik. (Astigáraga).

El perezoso siempre canso, el bebedor siempre de sed.

Otsoa ardi zai. (Astigáraga).

El lobo, pastor.

Gauza garesti zanean kapa beria erosi, ta merke zanean saldu. (Astigáraga).

Bat irabazi, bi galdu, au bere bizitza modu. (Refranes y Sentencias).

Hacer un mal negocio.

Pipa bezela bete da-ta. (Astigáraga).

Está como una bota (beodo).

Erial ořen kanbioak oraindik etořiko zaizka.
(Astigarraga).

Todavía recogerá los cambios de ese real. (Sentido material)

Todavía lo pagará.

Gustoko bidian, aldaparik ez.

*Gustoko tokian, bide txařik ez,
gau ta ilunik ere ez.* (G. Ondárbia).

Gogozko lekun, bide gogořik ez. (AN. Betelu).

Gustoko sarnak, minik ez. (G. Ikaztegieta).

La sarna con gusto no pica.

Amika bear ez lukanak gauzak izaten ſik. (AN.
Laíraun).

Cuántos que no debieran tener bienes los poseen.

INTZA'R DAMASO AN.

ESAERA - ZARRAK

AURREKO BI ITZ

Esaera Zarraz

Gaur zuen eskuetara datozen esaera auek eztira atzo goizeintzak ekarriak. Ogei ta bost urte egan joan dira, azkenekoak Euskal-errian bildu nitunez gero. Gerozko ontan, muxarrak neguan, ar-zulotan bezala lo egon dira.

Arriturik gelditzen giñan mutikoak, uda etortzean, aiek berriro pagaxia jaten asten ziranean. Baño geiago oraindik, pago-zuloen batean aietako bat edo beste arrapatzan ba-giñun, aien guritasuna, aien ille leguna ta bizitasuna ikusi-ta. Ainbeste illabetez jan gabe, ezagun zan, etzuen ezertxo galdu, aurreko negua sartzean, gure eskuetatik, iges egin zigutenetik.

Ua gauza arrigarria ba-zan, arrigarrigoa da neretzat esaera auekin gertatzen dena. Nere eskuetako kuadernotan auek sarturik, ogei ta bost urte ez baño berrogei ta amar urte ta geiago ba-dituzte batzuk baño geiagok. Baño gaur orduntxe bezin mamitsuak, orduntxe bezin lirañak, orduntxe bezin biziak arkitu dittut, ixfutaturik zeuden zokotik, nere begitarra azaldu diranean.

Zer gertatu zitzaiion ba, oiekin, esango dezute? Muxar-zale askori gertatzen zaiena. Muxar-eizera joango litzekena, lanari loturik ezin joan izaten da. Ta ori gertatu zait neri ere. Egunen eguneko lanak eta egin-bearrak eztirate betarik eman nere eizea jateko, edo-ta nai nun bezala zuei jatea emateko.

Esaera Zar auek, mirariz daude bizirik.

Chile'ra etorririk bederatzit urte neramazkinean Constitucion'go gure eliz eta komentua erre ta kixkalli zitzaizkigun (1). Ni ementxe nintzen. Suak arrapatu ta gure bizitegi geientsuak jan zizkigun. Aietako batean neuzkan, armario batean, ustez ongi gorde-ta, bide-zakuan sarturik. Bi-

(1) 1946-go urtaren 26'ean.

zitegi peko zur guziak errerik, armarioan neuzkan gauza guziakin on-datu zan beko su-artearen. ¡Agur, nere euskal lan guziak!, ¡esan nun negarrez. Sua moztu zuen urbillengo bizitza errean, antxe ziran nere paper guziak. Baño zun guziakin bizitza beko suan ondaturik, zer itxoin ne-zaken? Siñestatu naiko al dezute? Bost-sei egunez ez genun itzaltzen toki artako beko sua, naiz ainbeste ta ainbeste ur, goitik bera bota.

Noizpait ere itzalirik, asi giñan ondarrauk nasten, zerbait ere onik azaltzen ote zan. Eta ona emen miraria. Nere Euskal-erriko ibilleretako kuaderno guziak osorik, batzuen azal eta ertzen bat erre ba-zan ere. Besten azal guziak eta barrena ere uretan, baño osorik. ¡Ez al da miraria? Auekin batera, liburu bakar batzuk, azalak erdi kixkalirik atera ziran. Batzuek eta besteak oraindik ementxe dauzket begi-aurrean, Jaungoikoari eskerrak ematez ez aztutzeko.

Esaera Zarrak zer dira gero?

Esaera zarrak, gure aurrekoen jakinduri arrigarria dira. Itz gutxi-gotan, geiago nekez esan liteke. Bi, iru lau itzek, liburu audi batek aña erakusten dute. Gure aurrekoen buru argia, begi zorrotza, itz mar-dula, esakera zoragarria auetan azaltzen da.

Argatixe zor audi bat neuken Euskal-erriarekin eta auxe ordain-tzera nator. Ogei ta lau bost urtez, Euskal-erri geiena barrena nenbillen, uso-eiztarien gixin. Usoen bat urrutittik ikusi orduko, aiek ua eskuratzeko bideak artzen dittute. Esaera egoki, ez ezagun bat nere belarrietara orduko, antxe nintzen ni ere, nere kuaderno ta lapitza eskuan, iztunari eskeka; lentxao esana, berriz ere esan zezan, edo artaz zer esan nai zuken, adierazi zeazardan.

Eitzaria poztutzen dela, usoa jasotzan? Askoz geiago poztutzen ni-nuen nere izketariak, zuek ere poztuko zaituen esaera oiek lenengoz entzutean, eta gero beren mamia adieraztean.

Baño non, noiz, nola bildu nittun orrenbeste?

Non-nai nenbillenean, oñez, zalgurdian, trenean edo, naikoa nun erne egotea. Nere aldameneko lagunak gutxiengabe zuten garaiean, alako ateraldi politta egiten zidan. Ni pozez. Nere kuadernotxuan ezartzen nun esan bat; eta orduko, bere-berezko iz-jarioan, beste batek iges egiten zion.

Ordun, lendik, bildurik neuzkenetako zenbait aipatzen nizkion. Orrek berak bere erriko ta alderdiko beste batzuek gogora zekazkion, eta ortik, uso itsuak alako uso-bandak bereganatzen ditun eran, askotan

aldameneko beste lagun batzuk ba-zekazkin nere ondora, berai gogora ala esatea. Ortik nere eizeketa ederra.

Ortik bakarrik ez.

Naparro osoko euskal-aditzaren aldaketa guziak biltzen ibilli nintzean, mixioak ematen nittunean, edo edozein itzaldi egitego, edo iru-ren eta bosturrenak an-emen ematen nitunean. Apaiz-etxetan, bilketa polittak egiten nitun. Esaera zarren bilketa aixagoa zen, aditzarena baño. Au lan legorra ta buru-auste aundigokoa zen, aren aldean. Eta zoritzarrez ori osotara kixkalli zitzaidan gure sutaldian.

Esaera zar guziok era batekoak dira?

Ez orixe. Sail bercdzi asko egin litzke auekin. Batzuek euskal esa-keria ez ezagunak dira; ta orretxengatik bilduak. Geienak ordea, esaera bizi, izaneraren mota askotako aldarteak azaltzeko, edo ta oitura txarrak aizatzeko eta gaitz-bidetik atzerazteko eta etekin edo probetxu aundiko bideak erakusteko sortuak dira.

Bizitzako bide ona beroietan erakusten zaigu. Biziera txarrak da-kazkin ondamenak agirian jartzen dizkigute ta azken onera bidea, berak eragiten. Kristau Ikasbideaz gañera, esaera auek ziran gure aurrekoentzat beren tentekari ta zuzenbide. Alaxe izango al dira, ba, aurrera ere!

Zerok ikasi, ta zuen aurrei ere erakutsi, gure aurrekoen bide on ori.

Aurrena egin bear nukena azkenean.

Esaera Zar auek biltzekoan lagundu zenidaten guzioi eskerrak eman-ten dizkitzuet biotz-biotzetik. Beretako asko, Jaunak sarituak ditu onoz-keria, emen bere ordekoari egin zizkioten mesede aundiaz. Auxe eskatzen diot beintzat nik berentzat. Bizi zeratenok, auek artzean, artu baitaere nede esker onezko besarka baña. Zuek ezzpada, zuen etxe-ko, ordun aur ziñatenok.

Euskal-Eriarekin neuken zor au betetzean, arindu zait, biotzean neraman illuntasuna. Agur, ba.

Constitución'dik, 1964 Urriaren 3'an

Intzar Damaso An.

ESAERA ZARRAK

Apostua egin baño len txaketa erantzi, egitean jantzi (G. Hernani).

Apostua egin baño len burua nekatu; ondoren ondo apaldu (G. Andoain).

Mingañean eztu aririk. Izlari onaz, eta geiegi itzegiten duenaz ere esaten da (AN. Leitza).

Atzetik elduki. Au ere bi garaietan erabiltzen da. Lengo ajea duenaz; eta uste etzukenak atzetik entzuten dionean (AN. Leitza).

Obereneko aldera jo-ta. Norbaitek esan edo egin duenari, alderdi on bat arrapatu nai zaioneko (AN. Leitza).

Etxeko lapurrari peatzea ezta errezz. Jakiña da (AN. Leitza).

Eskea, apurtzu. Lanera bearrean, eskera jartzen dan alperraz esana. Apurka asko biltzen (AN. Leitza).

Ezpada gogorik, eztago bortxarik. Gogo gabeko langillerik eztegu nai, esateko (AN. Leitza).

Gaolan dabil. Egun osoan alperkerian dagonaz esana (AN. Leitza).

Gaben gaberdi dabil. Toki askotan *gau-txori* esaten zaionaz esana (AN. Leitza).

Gabolan ibillie. Iñon, ezertan gelditu gabe ibilli danaz esana (AN. Leitza).

An da emen, bela egiten duna. Nonnai ta beti lanari josten zaionaz esana (AN. Leitza).

Eguerdin naikoa ta gauean enpo. Asetzen eztanaz esana (AN. Leitza).

Il-da gero, salda bero. Gaxoa il-da ondorean, Apaiza billa joaten diranaz (AN. Leitza). Oartxo bat. Esaera ori ondo dator gaxoa azkene-kotan ikusteraño Apaiza deitzeko ez diranei zirikatzeko; baño orduan, eta ustekabeko eriotzeta ere, len-baño-len Apaiza deitu egin bear da. Itxurezko eriotza edo asnase gabe egotea, ezta oraindik eriotz egiazkoa. Azken atsarekin illik gelditzen dala uste izaten da; baño ezta egia geienetan, edo gaitzak oso janik ez-taudenetan. Eta uskabeko eriotzeta ordutu ta orduan oraindik bizirik egon litezke. Eta egoten ere dira zenbait. Argatik Apaizari otsegin egin bear zaio, Elizekoak, Oliodura emateko.

Oker edo makur... agindua egin zak (AN. Leitza).

Nola edo ala, al dukena egin zak (AN. Gartzaron).

Zakarditik atera ta sasin sartu (AN. Erasun). Ur-zulotik atera tibayan sartu.

Amabirjiña Martxokoz Erromako zubin; andik zortziko, mundu guzin (G. Amasa). Zenbait tokitan esandakoa, laxter non-nai jakiten dala, esateko.

Berriketa gutxi, ta aiek onak (AN. Ezkurra). Txatzukerian ari danari esana.

Galtzak ere salduko lituzke, zurrut truke (AN. Arruazu). ¡Alako edalea!

—*Ongitxo bizi zera naski? —Ni beti eskuzatar* (AN. Ezkurra). Ni beti azkeneko dantzari.

Eskalea, aberats. Ez ain gutxitan ikusten dana da ori (AN. Latasa).

Eskalea beti artzekotan (AN. Eraso). Artzeko eskua luze duela, emateko herriz motz.

Ajal-ondoan egarri gutxi (AN. Eraso). Apari laurra dutenaz esana.

Or ari ttuk beti jabe muri ta santamari! Batek au, ta besteak bestea, alkarrri esanka, ixiltzen ez dakienaz esana (AN. Eraso).

Zerok ibilli zerate jabe muri ta santamari! (AN. Eraso). On eztena alkarrri esanka ibilli diranaz.

Zakurrek susmo aundie du (AN. Eraso). Ostatu zaleaz esana.

Gauean parrandan; egunez lo-gure (G. Oñate).

Besterik eztan orduetan, Maria gurea goruetan (G. Oñate). Bi aldetara artu liteke: Bai jolasleik eztun orduetan ardatzari eltzen dionaz; baita goruetarako aldirik ezin arrapatuz dabillenaz ere.

Zerok ibilli zerate soñu ta dantza (G. Oñate). Alperkeriz, irabazi lezakena galtzen duenari esana.

Txuria joko genuke (G. Hernani). Txorakeri bat egingo genuke, esateko.

Azkarra nintzan, danen bear nintzan; gexala nintzan, antxe bizi nintzan (G. Billafranka). Jaunak emana, pozik daramala, esateko.
Beti kalian? Izango kezka sakelian (G. Deba). Alperkeriak eztu etxea aberasten.

Zeñekin egon; arekikoa (G. Hernani). Aldarte asko ditunaz esana.

Ba-zun bere zipitte (G. Hernani). Zerbait utsarte zuenaz esana.

Ameka ikusi bear du itsuek! (G. c.). Itsu gaxoak, askotan gorriak ikusten ditula.

Elbiük, San Bartolometan buruz bera (Gaintza). Otzak kuzkurtzen ditula, esateko.

Gariek, bere burue ebakiazten du (G. Gaintza). Ogi gosea sortzen dulako.

Eza, arrie baño gogorragoa (G. Gaintza). Arri gogorrenak irabazia eman lezake, ezak, ezertxore.

Gatzan diñe eztegu egiten (G. Gaintza). Irabazi urria dutela esateko.
Besten miñek eztu iñor iltzen (G. Gaintza). Erruki gabeaz esana.

Erio: begik argik (G. Gaintza). Azken orduak, asko esnarazten ditula.

Askoren astoa, goseak ill (G. Gaintza). Batak besten aitzekian lanak egin gabe uzten.

Ezkur urtea, negu urtea (G. Gaintza).

Eguzki ta ebi, martxoko eguraldi (G. Gaintza).

Pazko Mayatzeko, ebizu.

Urte ura, ogizu (G. Gaintza).

Besteentzat mediku, ta beretzat barbero ez (G. Gaintza). Besteri erakusten; eta berak?

Zegamarra etorri zait (G. Gaintza). Loak ematen dit, esateko.

Txarrak onari, ones-onean alkandora kendu egiten omen dio (G. Legorreta).

Uraren pitxetan eta aren zitxetan azia (; ?). Erderaz dauket: «Criado en la espuma y sustancia de la espuma del agua». Eztakit non edo nori artua. Baño bereala, euskaraz.

Azal-apañetan azia; zuri azitako semea (G.).

Erausian diardu (G. Gaintza). Berritxukerian bezala.

Alperrik Maria makillatu: berez bear du (G. Gaintza). Setatsua, makillak eztu beratzen.

Bustie, beti otz (AN. Larraun).

Idik adar igarra (AN. Larraun). Zikoitzaz esana.

Jaungoikoak adur-oneko egin zaitzala! (G. Andoain). Paketsu, zoriontsu egin. ¡Politta!

Bearrean, eta beltzean egiten degu (G. Andoain). Ezin bestean bezala egiten duenaz.

Askarate ta Bedayo, alkar ezin erayo (Araiz). Bien artean arkaitz aundia dagolako, edo-ta alkar ezin-ikusia dutenaz esana.

Iru urtetan bildotx; laugarrenean ardi zar (G. Orexa). Ezkontza, ala luzatzen dutenaz?

Eman da kendu; inpernuko txerenak ala egiten du (G. Aretxa-baleta).

Beretzat asko bear dunak, besteri gutxi opa (Betelu).

Jo ta salto, ezta negu: jo ta malo, ori da negua (AN. Araiz).

Indarbeartu egiten nintzen:

—Ola eztugu geren bururik argitzen.

Ta guzik saldu ta argitu giñen (AN. Araiz). Pakean bizitzekoan, bakoitzai berea eman.

Zorra daukenak, burua beiti (AN. Uarte-arakil).

Orixo duk ba, kolkoan daukena bestei ematea (AN. Madoz). Ez dana, balitz bezala besteri jotzen zionaz esana.

San Martin, negua atzetik edo aurretik (AN. Baraibar).

Dagonaezin dagonackikoa da ori (AN. Etxarri). Itz egizkorik ez-tuenaz esana.

Ori guziak eztire urre (Iribarren). Itxura ona, askotan itxura utsa, esateko.

Polleki-xamar, itxura txarrean (AN. Bera). Itxurez makal, izanez ongi-xamar, esateko.

Zite gaiztoa zioan (AN. Larraun). Begi gaiztoz ikusten.

Agintzen duanak nai duna egiten du; ta erregutzen dunak berriz alduna (G. Ondarrabi).

Arto-gose aundia dago (G. Ikaztegieta). Nekazariak gutxi bildu duela, esateko.

Artoz eztakigu nola ibilliko ditun; baño pensu leorra pranko emanen die beintzat (G. Ikaztegieta). Janaz eztakigu zenbateño; eltzakirik beintzat ez dute, esateko.

Aundiiena jo (G. Ikaztegieta). Geiago ezin esan edo egin litekeneko.

Goyena jo-ta (G. Ikaztegieta).

—Zortziak? Bai onak; ondo joak (G. Ikaztegieta).

Begie bete lan ba-degu (G. Ikaztegieta). Ezin egin-ala lan dauka-gu, esateko.

Bereak eta bi entzun da joan da (G. Ikaztegieta).

Bidez eta legez irabazi du (G. Ikaztegieta). Ondo irabazia daukala esateko.

Bizkarretik ondo, ta muturretik estu (G. Ikaztegieta). Lan asko ta jan gutxi duenaz.

—Lan aundia? —Buruz gañetik (G. Ikaztegieta).

Dan bezin luze utzi (G. Ikaztegieta). Illik utzi du esateko.

Dakienik ezta jayotzen (G. Ikaztegieta). Gerez guziok, ez-jakiñak.

Elorria loran dago; artoa egiten aro dago (G. Leaburu).

Zartza, deabruak artza (AN. Eugi).

Euki dogun gutxi; euki dogun beti (AN. Eugi). Degun pixka, izango al degu beti.

Eztanin (Ez denean) egoten dakienak, dagonian pixka bat jan leike (Mondragon). Goseak egoten dakinak, ugari danean geixago jatea, ezta arritzekoa, esateko.

Ue jaio zen denboran, izarrak zerun zeuden. Alakoa nonbait ongi ikusia dala; edo-ta doai aundiak dituna dala (AN. Larraun eta Basaburu).

Asto askok, lasto asko (AN. Larraun). Asko diran tokian asko bear.

Lapiko, lapiko ona; arropak eztik egiten gizona (AN. Araiz). Soñeko onak ez baño, bere buru edo izaera onak egiten gizona. Ta jan onak, gizentzen.

¿Esker mille! —Beartzen zeralaik, zato (atoz) nere bille (Aezkoa). Erantzun politta.

Apalazio egune, Apalazio zaldune, iru erregeen egune (Bizkaia, Zollo).

Aurrekoek kontra arean bez (Bizkaia, Zollo). Iñoren kontra, iñoi ezre, esateko.

Idiazabalgo artzayak, Zegaman; egunez ikusi ta gauez eraman (G.). Lapurraz esana.

Lixu egin bear, ta oyalik ez (G. Azpeti). Eman nai, ta ematekorik ez, esateko.

Poltsako odolak irekiñen dik iri (AN. Ultzama). Iri etzaik ajolaik ezertaz, esateko.

Poltsan dirurik ez; buru t'oñetan estalik ez; alare pipittik axolik ez (AN. Ultzama). Arlote utsaz esana.

Aritz aundiek itzal aundie (AN. Ultzama). Aberatsak, laguntza ugariago eskura.

Alu pobrian umia, beti arlore (AN. Basaburua). Ezer-eztunaren umia, beti heartsu.

Balego: kolkoa arriz bete-ta, larru gorrian joan zen (AN. Araiz).

Baserritarra izanagatik,

ez egin neri burlarik,

nere azpiko gona xuriak

eztau ke miriñakerik (G. Zegama).

Non da besta, an da neska (G. Ultzama).

Esnea pertzean; eta neska etxeán (G. Zegama).

Gero, dionak; bego, dio (AN. Auza). Egin lezakena geroko uzten duenak, iñoi-ezko uzten.

Ori ezta gure ardiaren bildotxa (AN. Auza). Olakorik ezta gure agotik atera, esateko.

Paxarana lore, negu luze (AN. Auza).

Erdiz-erdi beaztupatu zera (AN. Etxalar). Ba-zineki bezala, aztatu dezu, esateko.

Morkotsetan azia, zera zu (G. Alegi). Biguintxo azia izan dala, esateko.

Emen zegon ostro beltxa (G. Azkoiti). Txapelduna edo irabazlari aurrenekoaz, esana.

Belea esola puntan egon zanean baño, platera ondo ortan geiago zegon (AN. Larraun). Nondik sortu dezu orrenbeste jaki?, esateko.

Auntzak gubernatzten dun baratza, ta emakumek gobernatzen dun etxea, bik berdin (G. Altzaga). Askotan, ez orixe. Etxeko-andre ona, etxeko abea da; gizon mozkor, alper edo parrandaria berriz, etxearen ituxureik makurrena; ta etxearen ondatzalle. Ori bera adierazten du urrengo onek:

Mozkorren etxeán, eguerdiko babak arratsean. Alperren etxeán, ez eguerdi ta ez arratsean (G. Altzaga).

Asmoa, aul uts (G. Altzaga). Asmo utsa, gauza utsa da lurrerako; baño ondore on edo txar askoren azia izaten da. Ta asmo onak gure egintza guzien aurretik bear genituzke. Ta asmo txar edozeñi, sortzean burua moztu; bestela...

Esoletan apeo zintzilikan daudenean, peoi eske iñor ezta etortzen. Neguak eskuak lotzen (G. Altzaga).

Plazako neska ederra; azaroko izar ederra: biak berdin direla (AN. Gaintza). Biek erraz galtzeko arrixkua.

Ezkondutako urtea, ta tixerria ildako astea, oberenak dira (Gaintza).

Ezkontza ta buzkantza, berorik oberenak (G. Gaintza). Odolki otza txar baita; alaxe ezkontza ere, bere tenorean ezpada egiten.

San Pedroz kuku, ta San Bartolomez mutu (G. Balearrain). *San Pedroz kuku: Martzillez mutu.* Kukuaren garaia adierazteko.

Zer aitu, ura kontatu (G. Balearrain).

Umeek umeetara; ta dirua diruagana (G. Balearrain). Aberatsa iltzean geienean gertatzen dana.

Mastia bildurrek zaintzen du (G. Gaintza).

San Jurji; artuak ereiteko goizegi. San Markos; ¿Ai! erein-da ballegos! (G.). Nekazari txarraren kontuak.

—*Lan zion landan. —Biar San Bartolomé, ta soñekoa dendan* (AN. Arakil). Neska alperraren kontua.

Orrek beria beretzat; besteana, erdibana (G. Zumaya).

Etxe onek abia du (G. Zumaya). Oker-xamarraz esana.

Itzak iz-bidea omen du (G. Zumaya). On eztena besteri esaten dionak, aundigoak aitzen ditu.

Mingaña beria dauka (G. Zumaya). Orixе ezta motela itzegiteko; edo, bai egokia orrek esana!

Etxeko lapurra, txarrena (G. Zumaya).

Esku garbikoa (G. Zumaya). Norbait ain zuzena daneko.

Astoa il-da, garagarra (G. Zumaya). Garai onean zabiltza, esateko. *Iltzen denean oloa* (AN. Araiz).

Itz gutxi, ta aiek onak (G. Zumaya).

Maria gurea goruetan, bear ezten orduetan (G. Zumaya).

Iru lagun ta iru apari!... Eztioe asko nai alkarrí (AN. G.).

Illunpeko lana... Argiteko lotsa. Bi eratara: *Lana gaizki ateratzen dalako; edo-ta zerbait illunbetan egiten dala, lotsagarri litzekelako.*

Gabian parrandan-ta

goizian lo gure,

etzeria maite ori

osasuna gure (G. c.). Ala dabillenak osasuna galtzen; aundienak esan gabe.

Aida txuria aida beliyo (gorri bezala)

zelatian dagonari

begiak irteten begiyo! (G. Zumaya). Txantxetan ba-da're, gaitz-gura adierazten zaio zelatariari; zelatian ibiltzea, gauza itsusia dalako. (Txantxetan, jolasian.)

Zazpigarren balaunetaraño izan dedilla (G. Zumaya). Ones-gurarik bizieta norbaiti adierazteko esana, izan liteke azkeneko au. Baño naiz berori edo ta aurrekoa, beazunkeririk gorriena erakusteko ere, izan izan litezke. Orrengatik kontuan artu urrengo esaera polit au:

Maldiztua ta prozesiua,

irteten diran lekura,

atzera sartzen dira (G.). Esan nai du jakiña, Prozesiua elizera bezala, maldiztua gaiztoagana.

Etorriko da, batuen banatzallea (G.). Garai batean bildua, bestean joaten dala.

Egun asko erreskan;

zu beraien arrastan (G.). Bizitza luzeak ere, berekin darama gizona.

Dabillena tripa aundi, ta dagona buru aundi (G.). Lasai bizi diranaz esana.

Jaungoikoaren izenean ematen dana, atetik atera ta leiotik sartzen da (G.).

Bista ona eduki; ta alkar ezin ikusi (AN. Larraun). Gorrotudunaz esana.

Ormaiztegiko txakurrarena egin (G. Zumaya). Zer zan ba? —*Jo ta pasa.* Jokuan edo lanean, lagunak aña egin eta aurrera igaro, edo irabazi.

Katua eloriar dago (G. Zumaya). Norbaiti eltzeko, kontun erortzeko, edo goitik bera erortzeko-ta zorian dagola; edo erori-ez-erori dagoneko esana.

Bururik eztaukanak, ankak erabilli bear (G. Zumaya). Aztukorrax esana.

Gazte edo zar, beti Zumayar (G. Zumaya). Beti bateko danaz, esana.

Exkalu galanta, ori (G. Zumaya). Ergelaz esana. Exkalua, berez arraya da.

Urik eztagolako, ardorik ezin edan. Ura ba-genduke, ardoa erango genuke (G. Zumaya). ¿Ea zergatik? Ardandegira urez joan bear; eta itxas-bera izan.

Txanponik dun artean, ni ardandegian (G. Zumaya).

Orren andriak pasatu bearko ditu astian bi ostiral eta larunbata (G. Zumaya).

Orrekin ikusi bearko du senper (G. Zumaya). Gorriak ikusi bearra da orrekin, esateko.

Mutil ona dek gure neska! (G. Zumaya). Nere andrea ezta nola-nai izutzen dana, esateko.

Neska zarraren usaya kendu du (G. Oñati). Ezkondu da, esateko.

Ba-du adurra (G. Zumaya). Izanera ori odolean darama, esan nai du.

Gabea, motz (Laburdi). Ezer eztaukana, esku-zabal ezin izan.

—*Oatzera! —Lo egiten degun probatzera* (AN. Larraun eta Goierri).

Txingarra deguneko, Ortzirala (Ustaritz). Ezin jan detenean, txingarra?

Olloa deguneko, garizuma (Xubero). Jan ezin degunean, ollakia!

Berez bear Billabona (G. c.). Burua bear ikastekotan.

Ume ona, etxera bidean (AN. Baraibar). Aur onak etxeaz begiratzen duela, edo-ta aur ona, etxerako gordetzen dala, adirazteko.

Osaba Tomasek eman ezkerro egingo luke (AN. Albiasu). Bestek ordaindu ezkerro, apustu edo zerbait egingo lukenaz esana.

Uso txuria aidean; ederragoa maiean (AN. Araiz). Apustua, irabaztean poztari.

Or dago zopa! (AN. Larraun). Irabaztea, ezta uste izatea bezin erraz.

Txapel aundienak eztu buru utsik betetzen (AN. Larraun). Berez izan bear burudun, jakintsu izatekotan.

Eztu izenak egiten izana (AN. Larraun). Aundi izena, izen utsa dala adierazteko.

Ah zoroak! Oro erranikan ere, gelditzen da zer erran. ¿A. Mendibururenak? Esanak esanik, ezta naikoa, oraindik.

Asto aundiak, basta aundiak bear (AN. Larraun). Arroarentzat, guzia gutxi egiten.

Ezdute beti labein gañean (AN. Uitzi). Dioten aña, eskura ez daukatenaz esana.

Aritzak anitz adar ekartzen (AN. Baztan). Saltzaleak dakarren guzia, eztala ain ona izaten, adierazteko.

Denboran, denborako gixa (AN. Arrarats). Garai bakoitzean, bere gixeke.

Gizonak gizona billatzen du (AN. Larraun). Zintzoak, zintzoakin nai du.

—*¿Ze? —Me. Ardi txarrak anka me. —I aren lagun aiz* *zee?* (G. Orexa).

Aitonaren semea da ori (G. Oreja). Dirudun aundiaz, esana.

Itsua argituko du orrek! (AN. Larraun). Ez-jakin arroaz esana. *Aurrak berarekin dakar sorteoa* (Lapurdi).

Dendariak euskeraz itzegiten du (AN. Araitz). Bearrak erakusten du, bezala.

Zelaien baño ordekan, landereak indar geiago (AN. Araiz).

Ezta ori gaur goizeko intzak erantsia (Zumaya). Gauza ori ezta gaurkoa.

¿Ill aiz? Erraxena egin den (Getaria). Ongi bizitzeak ematen du lana.

Illargia eztago labe gañean (Gipuzkoa, Zumaya). Eztago orain jostaketarako.

Eztaukazue gatzaren konturik! (G. Zumaya). *¿Zein lasa bizi ze-raten?*

Zuen burua ta atariko aizea, biak berdiniek (G. Zumaya). Atzen-korrari esana.

Ezta ori zapataritzat ona (G. Zumaya). Egonarrerik eztuenaz esana.

Zoazte porruak jorratzea (G. Zumaya). Zoazte; ta pakea emazue, esateko.

Jaungoikoak ematen du otzik aña manta (G. Zumaya).

Negua nola, ardiek, illea ala (AN. Larraun).

Kanpoan larrosak: etxian arantzak, eta zorrotzak (G. Zumaya). Kanpoan uso, ta etxian otso, bezala.

Ajaldu bear eztuenarentzat maya pronto (AN. Burunda).

Apaldu nai estunarentzat maia prest (AN. Larraun).

¡Urrutiyo ta ederro! (AN. Burunda). Zenbat urrutiaigo, ordun-da naiago, esateko.

Olar errien erro erria, lar errian gora (G. Andoain). *Olarrua, er-deraz, «pulpo»; erro berri, «tentáculo» erderaz, olarraren adar luzeari* esaten zaio. Mingain motelak erneazteko esanera. *Akerrak, adarrak, oke-rrik ditu*, esaeraren antzeko.

Eguerri: eruak igarri (G. Andoain). Eroak ere Eguerritarako, eguna luzatzen dala ezagutzen duela.

Kosta-ta Atabak andria: erriz-erri danborra joaz (G. Andoain). Noizbait iritxi du nai zukena, esateko.

Gloriana egin du: Putrina egin du (G. Andoain). Kek egiteraño jan du, esan nai da.

Olua pagatuko zuen (G. Andoain). Galtze edo galmen politta etorriko zitzaison, esateko.

Zozua erre-ta gozua, egosi ta miña; zozo ipur-zikiña (G.). Iñori: ¡Zozua! esatean, erantzuna.

—*¿Zer? —Zerzeta, burruntzian erre-ta.* Baita, *burruntziaren puntan erreta, ere* (G.).

Zurekin ezkontzeagatik joan nintzan Erromara:

Zu lagatzeagatik joango nintzake Jerusalena (G. Zumaya).

¿A, zer lokatz-nastea eldu den! (AN. Araitz). Nasketa polittak sortuko dira!, esateko.

Alkipen kapa; kapa alkipen (AN. Araiz). Esateko zailla.

Idia bere adarrakin jango lukie (AN. Larraun). Alako gosea!

Gauean parrandan

goizean lo-gure?

Uste ba-duk ere

es nauk ire gure (G. Azkoiti).

Senper gaiztoa ikusi bearra aiz (AN. Larraun). Gorriak ikusteko aiz.

Etxeko trapu zikiñak, etxean (G. Alegi). Ez-bearrak, etxean gorde, esateko.

Aldapa beti neke (G. Alegi).

Aizik (aizeak) saldu zition (zikzion) (AN. Larraun). Bildur ona sartu zion, esateko.

Aizik salduik joan zen (AN. Larraun). Izuk arturik joan zen bezala.

Ori eztu gaur goizeko intzek emana (AN. Larraun). Ori aspaldiko gauza du, esateko.

Jesukristok gorrik ikusi zittula; nik bai ikusi dittuela (Larraun). Bira o zakarra.

Aundiiena egin bear zun-eta... (AN. Larraun). Il bear zun-eta, esateko.

Eztie beren eltzeari gatza botatzen asi (AN. Larraun). Aitzekiak besteri josten dizkiotenaz.

Botako zaitut pikutaraño! (AN. Larraun). Alde egizu emendik, esateko.

Ezta aril onekoa (AN. Larraun). Toki berean egonik eztuenaz esana.

Erregetan ollarraren arra;

San Antonetan mandazaien lepoa;

Otsailaren erdira, loa begira (AN. Larraun). Asmakizuna. Asma zazue.

Biribill, biribill,

uran iragi dabil;

buru audi itsas luzea

aren billeka dabill (AN. Larraun). Asmakizuna, ori ere.

Or dabil, akerrak adarrak ditun aldea (AN. Larraun). Biziera okerra daramanaz esana.

Atetik atera-ta leiotik sartu;

nori ematen zaion ez begiratu (AN. Larraun). Jaungoikoagatik ematen danaz ez kezkatu, ua ordaintzale ona da-ta.

Buru txarra denen, ankak pagatzeute (AN. Basaburua). Buru txarrak pauso alper asko.

Apal ondoan egarri gutxi;

goizin bi peztako txokolatii(tea) (AN. Larraun). Gabeak, apariantzeko gosaria, esateko.

Larra, maldan alde (AN. Larraun). Gaiztoa, gaiztoaren alde, bezala.

Bururik eztunak, txapel bearrik ez (AN. Larraun).

Sudurpeko txuloa eztuzu oso ona (AN. Larraun). Beti jaki onak nai lituzkenaz esana. Baño, ago-zakarrari ere esan litzaiokena.

Bota-boleo audiak botatzen dittu gero! (AN.). Gezur audiak esaten.

Zerri aule, ezkurrek ixildu emen zun (AN. Larraun). Gosez dagona, ogiak.

Zu maratill bille beti (AN. Basaburua). Nondik adarra jo zabiltz, bezala.

Zaldabe berrik soñu ona. Arto berrik usai ona (AN. Basaburua). Okin berriak,ogi ona.

Orrek egin du Santa Marta (AN. Basaburua). Beretzat artu ta besteri ez eman, egin du. Erderazko «Santa Marta; el que quiera pan que se parta»-tik norbaitek sortua izango da esaera ori. Baño, Santa Marta, oso bestelakoa zan. Gure Jesus Jaunari ta bere apostolu guziei, ark ematen baizien ostaturik gozagariena, Ebangeloian ikusten degunaz. Argatik ezta egokia.

Goseak dagonarentzat arto otza, ona (AN. Basaburua). Goseak, al duena jaten.

Zirt edo zart egin bear degu (AN. Basaburua). Alde batera edo bestera ekiogun, bezala.

Zaparretik atera ta sasin sartu (AN. Basaburua). Lan txar batetik txarragora aldatu.

Berez bear billera onekoa (AN. Larraun). Etxekoi eztenak, etxetik edo lanetik alde.

—*Ze...? —Me. Ardi xarrak ankame. Urren aldin egon erne. Zabarri esana.*

Etxe zarrak, ittutte (G. Ikaztegieta). Zartzean, gaitzak gañezka, esateko.

Ez lukainka ta ez mutur (G. Ikaztegieta). Dana nai, ta guzia galdu egiten, geiegikeriak.

Oitura ori etzun oraingoxe (G. Ikaztegieta). Eztu gaur goizeko intzak ekarria.

Bera ere ezta gain-gañekoa (G. Ikaztegieta). Bestei utsak ateratzen ari danaz.

Ikasi ta jakiten da (G. Ikaztegieta). Nekerik gabe ezta jakiten, bezala.

Jetxi zanak, alkia galdu zun (G. Ikaztegieta). —Joan azi-ta, ire tokia galdu.

Jo ta kia egin du (G. Gaintza). Auts biurtzeaño jo du, bezala.

¡Jo, ta su! ¡Su ta gar! (G. Ikaztegieta). Lanari ekiñazteko esanak.

¡Jo ta tira! ¡Arre! ta makil; or daramazki bei gaixoak (G. Ikaztegieta). Gizonak, berotzean esaten eta egiten ditunak.

Jo, ta uts (G. Ikaztegieta). Oker jo duneko, jokuan edo lanen batean.

Jo ta zerraldo (G. Ikaztegieta). Gaitzak edo norbaitek jo ta, be reala ankaz gora.

Len ere udetan pasatua izan ori! (G. Ikaztegieta). Lendik ongi ikasia zegon, esateko.

Nai ba-den, nai ezpa-den; ikusi bearra den! (G. Ikaztegieta). Lan edo toki batera joan nai eztuenari esana.

Nun ene txoko, an ene goxo! (G. Ikaztegieta). Gogoa nora, nere ankak ara, bezala.

Onenak eman ditu (G. Ikaztegieta). Egin dun baño geiago ezin dezakenaz, esana.

Ori gizonaren egitekoa! (G. Ikaztegieta). Bi aldetara esaten dana; bai egintza arrigarri bat egitean; baita txorakeri edo gaitzakeri aundien bat egin duenaz ere.

Orain oraingo; ta gero geroko (G. Ikaztegieta). Gerokoa alde bat utzi-ta egin dezagun au, esateko.

Pentsu añe makil, artzen dizkik bai orrek, goizetik gabera (G. Lizartza).

Pustue, lertu bear (G. Lizartza). Aunditsua bezala, asarrea ere azkeneko lertu egiten.

Tximiniko kerik ere ez opa (G. Lizartza). Norbaiten zikoizkeria azaltzeko esana.

Mendiko otsoari ere, ez-tiot nik au opa (AN. Intza). Nere aitta zanari, bere azken gaitzean artua. Alpeta edo asnase ezin artuak ittotzen zun ba.

Begia luzego, tripak baño (AN. Larraun). Jan ezin-ala, eskatzen dun aurraldi, esana.

Apez batek bedeikatu al aña lan (AN. Larraun). Buruz goiti, lanez ittorik, bezala.

Baztandarrak itzak ederrak; baño opille kolkoan (AN. Larraun). Itzez bat eta egintzez bestela izaten danaz esana.

Idi zar ori artu duaneako, ez bei-euken aukera;

Janari azkar ematen ezpadiok, joango duk errekan bera (AN. Larraun).

Asnas bakarrean etorri zen (AN. Madoz). Laxterka joan zanaz.

Damuak ez-dauzkat uretan (AN. Arbizu). Nik dakit, nere naigaben berri, esateko.

Ikusi ta itsu: aitu ta sor, egin bear da (AN. Eraso). On ez-tena ez begiratu ta ez entzun.

Lanez ittoa nago; baño or nazu laguntzeko (AN. Eraso). Ori da maitetasuna.

A! zer ipurdikoa izan zun! (AN. Eraso). Galtze politta izan zun! esateko.

Deus ezten lekun eskuk garbi; Zerbait den tokin begik argi (AN. Oderitz). Ijitoak ala erakusten bere umeari.

Sasik ere ba-ditue begik (AN. c.). Gutxienean uste degun tokian, ikuslea. Ta guzien gañetik, Jaungoikoa.

Izotz aundiiez, lurture (AN. Eraso). Izotz aundiak, lurra arrotu ta giro onean uzten duela, adirazteko.

Goiz etzin; berandu jeiki;

beranduago lanera.

*Berriz ere ez faltako
ogi txikia maiera* (AN. Eraso). Alperkeriak berekin dakarrela gosea.

Goza-mizkek galdue daukie. (AN. Madoz). Gozagarri geiegiz, aurra gaxo.

Eskuarto ona dauke (AN. Baraibar). *Eskuarto onekoa. Eskuartean sartu da* (AN. Baraibar). Diruduna dala eta diru asko egiteko bidean sartu dala, esateko. *Eskuarto pizkat badu* (Larraun).

Egunei dagokien gauik ezta (AN. Beramendi). Eguna bezin gau onik ezta.

Utsegiañek apezaentzat (AN. Basaburua). Utsegiañak Apaizak barka ditzala.

Norbera den tokin Jainkoa (AN. Basaburua). Norbera, mandatarik oberena.

Beretako aunitz bear dunak, bertzei esku-gibel gutxi ematen dio (AN. Ultzama).

Zartu ta ezindu; oberenak eman ttu (AN. Ultzama).

Erik eta bat geiago artuko ttuk (AN. Ultzama). Ederrak artuko ttuk, bezala.

Per istam egingo diat gero (AN.). Burua ausiko diat gero, bezala.

—*Gaur non intzen ogis? —Ogis, iñon ez; artoz, txertxaen etxian* (AN. Ultzama). Jana, etxez etxe zun.

Zakurren biguliñe iretzat (AN. Ultzama). Oaie emendik, esateko.

—*Iruñan jzer berri? —Iruñan gari asko. —Gari asko, gari asko;* baño baterez neretako Karlos V-garrenak esan emen zun (AN. Ultzama).

Pipa pitz. —Erran bi itz (Xubero).

Astelen. Buruaundi (AN. Larraun). Gautxoriri esaten zaiena, betondo aziakin azaltzean.

Autsez eperdi ibilli (G. Orexa). Lezaken baño geiago egiñez ibilli, esateko.

Iltzen denari ez baño, jaiotzen denari egin bear emen zaio nigarra (AN. Baztan).

Gu allaatzen geran guzik, ba-due, ankan bat makurre (AN. Betelu). Ez laguntzeko aitzekien bat ba-due, esateko.

Ol gutti den lekuen, alki tiikia (AN. Bertizarana). Gai gutxiekin, gauza aundirik ezin egin.

Tutulue dantzatzen dik orrek! (AN. Aezkoa). Orri etziok iñor parrik egingo; bizia duk.

Ez auts, eta ez iketz (AN. Aezkoa). Ez ur eta ez ardo, bezala.

Marruxketuko aut (AN. Aezkoa). Auts biurtuko aut, bezala.

Alako landaren, surrioan dago (AN. Aezkoa). Alako soroaz jabetu naiez dago, esateko.

Me-egunean gizen jaten duna, zerurako ezta ona (AN. Baztan). Arraikia besterik zillegi ez denean, aragia jaten duenaz.

Kanpoan bildots, etxian otso (AN. Baztan).

Gaiztoz-gaitzo; nekez arkituko da asto gaiztogorik (AN. Baztan).

Ez naiz ni ere, atzo goizeko bildotx (AN. Baztan). Nik ere urteak ba-ditut, esateko.

I antxu intzeneko, ni ere bildotx bedere ba-nintuken (AN. Baztan). Ez-tiñet nere beatzik jaten, bezala.

Probintzikoak, apostu egin baño len ateratzen du izardia (AN. Li-zarraga).

Txerri gosiaik, ezkurra amets (AN. Unanua).

Atxurra ez, ta bestia (AN. Unanua). Asta-kirtena, bezala.

Ze ikusi, ura ikasi (AN. Unanua).

Gustoko lekuau, aldapaik ez (AN. Unanua).

—Motell! Panaparron ago! —Degulako! (AN. Unanua).

Otsua, ardi-zai (AN. Unanua). Zaintzale lapurraz esana.

Lotsik ez; bearrik ere ez (AN. Unanua). Ezertaz ajolik etzaionaz esana.

Andik apur, emendik apur, guk beti ere eultzia bildu dugu, zuzen edo makur (AN. Osakar). Lapur-txiki esaten zaioten baten kontua.

¿Bein beren! Arreko ezkillek erran zuen (AN. Esteribar). Noizpait ere elizan ikusten danaz, ta, esana.

Lemixiko aurtasuna eder, bigarrena kirats (AN. Aezkoa). Zartzaroak, berekin nekeak.

¿Arri ta so! Orrek deusik eztik aitzen (AN. Ultzama). Berea besterik entzuten ez duenaz esana. Entzun nai ez-tuenarena, sorrerrik ma-kurrena.

Bakoitzak, bere sandua alaba (AN. Abaurre-gain). Bakoitza, bere gogokoene alde.

Cabak begia beltz; Gabea beltzago (G. Orexa).

Ardi beltxak, eztizu axuri txuria egiten (AN. Ultzama). Amaren antzeko, alabak ere.

Plazan egiten dan ezkontza, plazara ateratzen da (G. c.).

Nolako eltzia, alako burruntzalia (G. Ernani). Nolako nagusi ta etxeko andre, alako mutil ta neskame.

Eguerri zerekin, Urteberri arekin (AN. Esteribar). Asteko zein egunetan eguerri, berdin urteberri.

Bazko guziek il-zar;

Ireute guziek il-berri;

Errege Salomonek (Absalon'ek)

ez-tu ez gose t'ez egarri (AN. Bera). Esaera onek ba-du bere istorioa; politta bera ere. Dabid Erregeari gaztigatu bear zitzaison, Absalon, aren semea, il zala. Baño berri ori *¿nork*, eta nola emango zion alako berriak zeramazkienei eriotza ematen bazien Dabid'ek? Isboset errege, Dabid'en etsaia, il zuletako berria eman ziotenak, ill egin bai-zitun. Saul errege, Dabid beraren etsai amorratua ta Jonata aren semea, ill zirala esan ziona ere, ill-azi egin bai-tzuen. Ordun *¿nor ausartuko zen bere semearen berri txarra ari ematera?* Dabid'en soldadu ta agintariak atzera egiten zuten garaiean, agure xar-xar bat aurreratu zen esanez. *¿Zer dezute, Erregeari, on den bezala berri ori emateko?* Nik esango. Ta erregeangana sarturik, esan emen zion, or goiko esaera egokia;

«Bazko guziek ill-zar;

Ireute guziek ill-berri (Ireute, iñeraute, iñaute edo iyote, guziek bat)

Errege Absalon'ek,

eztu ez gose t'ez egarri».

Esaera esan zidan Andretxoak, Errege Salomon'ek (oker) esan zidan: Dabid erregek, bi begietatik negarra zeriola, eskerrak eman zizkion gizaki burudun arri.

Nolako belea, alako umea (AN. Saldise).

Etxe txarruaren kirtena dek ori (G. Ernani). Gizatxarren baten seme zela, esateko.

Gazta zarrai arra bezela, dario gezurra (AN. Leitza).

¡A, Kattalintxonekoa! Amalau potton (AN. Leitza). Ori txorakeria! esateko.

Gezurrek ankak motzak (AN. Areso).

Buru batek milla balio, ta millek batez (AN. Areso).

—¿Gizon zuzena al da? —Bai; auntzaren adarren aldea (AN. Areso).

Illunbetako lana, argiteko lotsa (AN. Areso).

—Nola azitzen dezu orrenbeste ume? —Txikiiena maitatuz; ta audiiena zatizuz (AN. Areso). Ijitoak erantzuna.

Ume jaio ta ume biurtu (AN. Areso). *Aur jaio ta aur biurtu* (AN. Larraun).

Sugearen umeak, sugekume (AN. Areso).

Zayetan legor; iriñetan abar (AN. Areso).

Kanpoan eder; etxeán beltz (AN. Areso).

Borondate ederra; baño etxe utsa daukeu (AN. Areso).

Subeak, subekumeak azitzen dizkik (AN. Araitz).

Arri-pikatuik gelditu naiz (AN. Saldise). Ondaturik gelditu naiz.
Pistia bera, ones-onean eskura (AN. Araitz). Gaiztoena ere ones-onean irabazten da.

Sardin erdi jan; sardin erdi lan (AN. Unanua). Otordu onik gabe, lan aundirik ezin egin, esateko.

Gari ona, kutxatik saltzen da (AN. Unanua).

Gizon orrek abots txarra du (AN. Baztan). Mingain gaiztoa du, esateko.

Gabea, erdi mantenu (AN. Lizarraga). Gosez bizitzen, esateko.

Maritzar adiñe, Joanes galtza zar (AN. Bera).

Mayatza, otzak eta goseak ille (AN. Bera).

Pazkoz illargi zar; Austez illargi berri (AN. Bera). Auste, austerre eguna.

Giltxaurrak urrunera beti beteak; ondora gan-ta batere (AN. Baztan).

Katuek ikusi nai ez-tuenak, sagu artoriak, berak arpa dixala (AN. Baztan).

Etxe ontan gudu gabe; dire buru gabe (AN. Arizkun). Gudurik etzuela; baño bururik ere ez. Baliteke beste era ontara ere esatea: *Etxe ontan gudu gabe dire, buru gabe*. Ta esan naiko luke: Etxe ontan gizonik ezta, baño pakea bai.

Eztio odolak berealakoan irakiñen (AN. Arizkun). Norbait oso illa, edo apala daneko.

Odola etzaio burura iyein (AN. Arizkun). Gauza bera.

¡A zer perretxikue den ori! (AN. Baztan). Mutil ona duk ori! esateko.

Ago-bete ortzekin utzi (AN. Arizkun). Dun guzia kendu, edo ostu dioteneko.

Sagar onak, errekiste ona (AN. Arizkun). Gari onarena bezala.

Etxeko langille orrek ¡Zer kiderra dauken eskuetan!

Non du kiderra? —Bera da kider aljerra (AN. Arizkun).

¿Non duzu guardasola? —Etxera allaatzeakin, atrako dut kanpora (AN. Arizkun).

Auts-urte, arto urte (AN. Arizkun). Auts, añoari esaten diote.

Bere erranetik ezta ateratzen ori (AN. Arizkun). Bi aldetara: Emandako itzetik ezta ateratzen; eta, setatsua dala adierazteko.

Arto-opilla ein-berri, gain zuri (AN. Doneztebe).

Nor da nere kontrarioa? Nere ofiziokoa (AN. Larraun).

Nai dunak ongi bizi, gaurkoa biarko utzi (AN. Araitz). Janar geiegia, egun berean ez ondatu.

Gaur egin daitekena, biarko ez utzi (AN. Araiz). Ori, lanaz, esana.

San Bartolomek ezkero, Albixuko telerian, goizteri presko (AN. Barraibar).

Karakola ta barea: ¡A zer parea! (AN. Araiz). Bat alperra, bestea nagia edo diraneko.

Gaiztoari bi belakin argi egin bear zaio (AN. Araiz).

Merezi eztun zaldik, bi pensu (AN. Araiz).

Katu kutiziosoari, muturra erretzen zaio (AN. Araiz). Geiegi era-mateagatik guzia galtzen dunaz, eta jale geiegiari, agoa erretzen zaioneko.

Ez ba-du balio pobrearen arrazoik, nik berotuko ttut etxe ontako sagu ta arratoiak; esan emen zun Tolosako maixtarrak.

Arrebe ta Atallo, urre gorri batayo (AN. Araiz). Batayo aberatsaz esana. Arrebe ta Atallo, Araiz'ko bi erri dira.

Etxea bete kaiku; ta eltzero beia jeizten (AN. Areso).

Iru eltze ta pertza? Gure etxeant pesta (AN. Araitz).

Ari ziñan mandoa mozten? Ari bearko familie azitzezkoz (AN. Araitz).

Senarra il nai ba-dezu, uzta-agoztutan, aza emaiozu (AN. Araitz).

Izan ba-zin̄e antxume ona, etzin̄en egongo zazpi umen ama (Areso). Neskatzar bati esana.

Uazama; mala fama (AN. Areso).

Txapela batekin bi buru estali naien dabilenai, bik agirin gelditzen zaizkio (AN. Areso).

—*Etziñun aitu Mixiolariak nola esan zun; Jaungoikoak ezur zarrak eztittula bear?* —*Nereak, zarrak eta gogor-xamarra bearko ditu-ba; berandu-xamar akordatu da-ta* (AN. Araitz). Aitortzeko, atzeraka ibiltzen zan baten esana.

Erori-aldi batean, —Ederra artu dek! —Bai baño, beti txarra baño obea!

Orain arrapa zak telleriko langa (AN. Areso). Erosi nai zukena, saldurik; edo ustez beretzat jotzen zuena, orduko eramanik, edo bestek eramatene dioneko. Bat bere lagunari ari zaio bere joan-etorri asko, ta orduko bere gora-bera guziak esaten; bestea *ez-lo, bai-lo, ;bai, bai!* erantzunez beti. Orduan lagunak. *Bai! bai? Ezetz esan bearrok ere yoan dituk or!* (AN. Areso). Leitzar batzuz esana.

Negarrez bildu ta parrez jan, egiten ditu (AN. Araitz).

Illuntzen dunean, etxe guzietan ateak itxi egiten die (AN. Araitz). Askok edo asko ta askotan eskatzen duenean, ateak itxi egiten diela, esateko.

Ogie ordañekin pagatzen da (AN. Araitz). Ongi egitea dionari, ongi egin bear.

Begiak beliz-beltzak, mantzalin, dituzu;

baña ur-gorria edaten, poleki dakizu (AN. Araitz). Etxeko andreatako etzera ona zu.

Amorrai aundiak, trikia jan egiten du (AN. Araitz).

Elurretan jaio, ta izotzeta batayatue (AN. Areso). Zittalaz esana.

Portaleak erakusten du, ziudadea nolakoa izango den (AN. Areso).

Norberaren itxurak, jazkera edo ibillerak, azaltzen du nolako dan.

Bakoitza nola bizi dan etxeko labatzak jakin (AN. Areso).

Andre ona, naiz silleako, naiz pastarako (AN. Araitz). Guzitarako ona.

San Pedro Nolasko: aragi gutxikin, salda asko (AN. Araitz). Aita Bartel, Prantziskar mixiolarri bikañak, esaten emen zun.

Ollarrak, bere lurrean indar izaten du (AN. Araitz). Nor bere etxean nagusi.

Astorik nai ez; ta zaldirik izan ez (AN. Araitz). Oñezkorik nai ez; ta zaldunik izan ez bezala.

Nere andrea goiz jekitzen da,

pestara bear dunean;

buruko miñak arrapatzen du,

lana egin bear dunean (AN. Araitz).

Gizon ederrak, askotan,

ofizioa yokuan;

okasioa besterik ezta

bera dabillen lekuan;

andreak ditu kulpa guziak

itzikan esandakoan (AN. Areso).

Gizon taberna-zalea,

etxe galtzalea (AN. Areso ta Oskoz).

Ardi sorokoiek, lagunak billatzen (AN. Oskoz). Ardo-zaleaz esana.

Nolako txoria; alako kabia (AN. Oskoz).

Arto egin-berri gain zuri. —Zer zaizu zuri?

—*Auzoan iltzen den txerri gizenak, etxean probetxu gutxi din* (AN. Oskoz). Nork berak etxean bear. Beti onela bizi ba-giña, ongi giñake Katalin.

Utsa litzake, berak bakarrik ba-lijuaz (G. Oyarzun).

Nere andreak atorra zarra,

berea ba-lu ezer ez;

labatza baño beltzago dauka,

garbitutzeko alperrez.

—*Nere gizon ona, lau atorra ba-dituzu,
soñean daukezun zirkun-zarkun,
egingo dizudan berria,
irugarrena ia egiteko
Lakuntzan daukat azia* (AN. Areso).
Gure ollarak kikiriki?

;A zer mutilla naizen ni! (AN. Latasa). *Mutil koxkorrik esana.
Rau, rau, rau, kontu ona diau,
Astigarraiko zaldie, kargatu bear diau*

Gaur nik uste nun baño, diru geiago bildu diau (AN. Areso). Au kantatzen emen zun, Areso'ko neskame, Tolosan olloak saldu-ta zetorrenak, saskia utzi-ta dantzari.

—*Belar asko bildu dezu? Mayatz luzeak jango ditu* (AN. Areso). *Gaztearen burue ariñe; bañan burla egitea gaizki egiñe* (AN. Areso). *Etxe uts; garr-uts* (AN. Oskoz).

Bakoitzak, bere santuari otoitz (AN. Oskoz).

San Gil: Iretzeak ebakitzea zil (AN. Ultzama). Orduraño ez baitzuen zillegi.

Segurik, xuri ta gorriak dantzatzen dire kexu delarik; Ba-du leporáno ontasun (AN. Ultzama). Ontasunez betea, baño gizon zakarra asarrean, adirazteko.

Bahatzetik gosia, bahatzetik asia (Xuberoa).

Lurrak azi; lurrak jan bear (Xuberoa). Gure gorputzaren etorrera. *Zuek asto ilari joka* (Xuberoa). Urrutikoaz gaizki esanka.

Gazteak seguro ta zarrak eskapoik ez (AN. Arakil). Il bearra.

Nere burue, motel ez egiteagatik (AN. Baraibar). Bildurti ez agertzeagatik.

Izena duen gauze guzik, zerbait ba-dire (AN. Baraibar). Ustezko zerbait ba-dira.

Tripek eztu gezurrik (AN. Baraibar). Goseak bearra erakusten.

Zuk eztuzu kia asmatuko, ez (AN. Lizarraga). Kia, erderazko polvora.

—*Deus ez. —begin on da; baño sakelian, ez* (AN. Lizarraga). *Ollo zarrak salda ona;*

Araile zarrak gauz ona (AN. Arbizu).

Mingañetik ortzea baño len, gezurra (G. Ernani).

Amaren sableko kutsua dek ori (G. Ernani). Gurasoetatik datorkio. *Beñere eztena, bein da* (AN. Larraun). Iñoi ez entzuna, gertatu da.

Kukua etorri, gosia etorri; kukua fan, gosia fan (AN. Lizarraga). Kuku-garaia, gose garaia, edo garia urri izaten dan garaia.

Zer ari aiz? —Zotzari ziria sartzen (AN. Ezkurra). Alperkerian, edo lanik gabe.

Dantzaririk oberena, koskabillorik gabe (AN. Larraun). Geien nai lukena ezer bae.

Axuriik obeena, txintxarriik gabe (AN. Larraun). Geien merezi lukena ezer gabe.

Kolpe gabeko makillai, eztio iñork eltzen (Motriku). Azkarra de-nean, etsaia sortzen.

—*Eta zuek, txakurraren aizea* (G. Azkoitia). Ori erantzun zion, bere lagunaren etxera pestetarako, alako ta olako aide ta adixkideak izango zituela, espaka, esanez ari zanari.

Errikuntza pixka bat egingo zendun (G. Azcoitia). Zere erriaren alde ariko ziñan pelleki, bezala.

San Bartolomek ezker, mendi txikik itzal aundia (AN. Araitz).

—*¿Noiz etorriko da?* —*Eriotza bezela* (G. Azkoitia). Gutxien uste denean, esateko.

Goibel oiek leokatuik daude ta; ezta euririk (AN. Esteribar). Leokatu, leioka jarri.

Antzotza erria zuretzat (AN. Bera). Antzotza; gaña kendu zaion gazura da.

Pittiri xangi-gorri, kutxa aundi ortan dago (AN. Ziaurritz). Morrooa or dago bezala, aur txikie esaten zienza.

Zer-gertaere, ongi bizi emen zen; ta bidenabarko lanak, bi balio emen zituen (AN. Osakar). Zer-gertaere, ta bidenabarrean egiñak, irabazia dakarte.

Negun iltze ittuk; udan pizte ittuk;

Muxarrak bezala dituk (AN. Araitz).

Besteren etxeau, agudo azitzen die aurrek (AN. Intza). Nork berak azitzean, luze egiten.

Goiz gorri, arrats itturri (AN. Intza).

Garaiek dijoaz, garaiek (G. Zegama).

Bakoitzari berea; au da zuzentasuna (G. AN. c.).

Eroa baño, obe duk bero (AN. Madoz). Ero iruditzeaz, bero dijoanari, axola gutxi.

Arraultze jatea, ardo edatea; arraultze jan da, ardo edan da (AN. Madoz).

Motrikun barrena zijoan Ataundarrari: —*Ataun'en bai al da lapurrik?* —*Motrikun, gizon onrradurik aña bai.*

Ajola zait neri asko orrengatik (G. Tolosa). Axola gutxi, bildur gutxi orrengatik.

Mandoak il da, dago (Zarautz). Okerrik audiengak bildur ditunaz, esana.

Zure lagunak, lan asko? —Ark, txakurrari jai (G. Zarautz). Ezer ere egiten ez.

Alki ontan obeki egongo da, txiki ortan gerrik kondetu-ta baño (AN. Intza).

Arotzaren etxean, txotxa gerren (AN. Beruete).

Len zena; gero zena; Beutako Beazena (Larraun). Lengo lepotik, burua, bezala, edo-ta.

Azarik illea aldatzen dik; baño larrua ez (AN. Larraun).

Azinda aulek, arkakoso asko (AN. Larraun).

Elur-melur; enauk ire bildur;

Txabolan ba-diat naiko arto ta egur (AN. Gaintza'ko auntzaiarena).

Mutiko, putiko; axola gutiko (AN. Aezkoa). Nolanaidabilen aurraz.

¿Zer degu zartari zar? —Ongi etorri, liburu zar.

—Liburu zarrean egon deizke konseju onak. —Zartari zarrean ere bai berendu onak (AN.).

Bi neska zar bildu zien: —¡A, neska bi ortz ttunena! —Zer beaun, bat dunena? —Oyartzunen ezkondu emen dun batere eztuna (AN. Larraun).

Kontu oiek eta auntzen gauerdiko eztule, bik bat (AN. Larraun).

Kulpe gabiak penaz egongo akaso; Kofradian eztenak, ez kandelaik jaso (AN. Arruazu).

Negua; zarren borrerua (AN. Arakil).

Zeñek lenka, ibilli bear lanerako (AN. Atez).

San Juan eta San Pedro, astero ba-lego! —Ta Ama-Birjiña urriko?

—Sekula ez al duk etorriko. Besten erriko pesta-zaleaz esana (AN. Esteribar).

Otsa ezpada, zorrotsa ba-da beintzat (AN. Osakar).

Martxoan lañoa noraño, aprillen elurrek araño (AN. Otxobi).

Sasian eskriture egin da, plazara ateratzeko ona duk au (AN. Larraun). Billauaz esana.

Ezurrek mami biurtu arte joko aut (AN. Larraun).

Txerri(e)n alkate jarriko zaitue, ezkurre baldin ba-da (AN. Larraun). Irrintzika dabiltzen mutillez esaten da.

Onñazturek artzen joan da (AN. Larraun). Tximistaren ziztuakin joan da, bezala.

Año eiñe iritxi da (AN. Larraun). Ler gaizto egiñik, bezala.

Zin gorri eiñazi diak (AN. Larraun). Laxterrean lertzeaño egin erazi. Mando egin (Ondarrabi).

Jauengoikoak egin zun Martin, bere prakakin (G. Arrasate).

Bai-jauna eta si; ez gera guziok berdin bizi (G.).

Aitzeki ta maitzeki, zu lurra baño ustelagoa (AN. Ultzama).

Urte berri ta urte zar; martzelino galtza zar (AN. Ultzama). Beti zarpaitstu.

Gizetxarra plazan, ezagun da trazan (AN. Ultzama).

¿Zer adiurriko gizonak zerate zuek? (AN. Baraibar). Ze moteta-koak, esateko.

Kondea kastatik; ayena maldatik (AN. Ezkurra).

Elur gañetik eldu dan egoak, urkabean zegoana ikaratu emen zun (AN. Ezkurra).

Goizuetarrari Apaizak; Animen etsaiak zein dira? —1. Andre ordia, 2.º Mando maingia 3.º Zagi zulatua, mundua, deabrua ta aragia.

—*¿Zer?* —*Ago batean, bi mingain dituzula* (AN. Ezkurra). Ge-zurti.

Goizuetarraren etsaiak: *Izotzaan gañeko ego berria;*
larra bi puntetan lotu-ta;
ta illargipeko putzua (AN. Ezkurra).

Atorran sartu-ta ago (G. Orexa). Oraintxe bai pozik agola, esateko.

Lagun berritu zerate? (G. Orexa). Aur berrien bat ba-dezute?, esateko.

Goizetik sestoka asi zera; ta orain ez bat eta ez bi jo nazu (G. Orexa). Sestua edo axeka.

—*Zer ari gera?* —*Guzurrak zurituten* (B. Zeanuri). Mar-marka.

—*Zenbat urte?* —*Larohei urte troñuan* (Txorierrri). Troñu, soñaz esaten.

Zu ezago, ni pozago (G. Orexa). Zenbat eta geiago zu ukatu, ordun eta ni pozago.

Txirdin idorrik eztu ekarri (AN. Esteribar). Guzia uretan etorri da, esateko.

Aize egoa, andren gogoa (AN. Esteribar). Ain aldakorra!

Guk bear dugulaik, ubaldean eztuk urik (AN. Esteribar). Lagun-tzeko, iñor ez.

Orrek ere mi altzaratue dik bai (AN. Esteribar). Mingain bil-durgarría.

Erran, ta egin (AN. Esteribar). Esan bezala egin.

Itxea gañez; ta denak iretsi naiez (AN. Esteribar). Alako gosetia!

Batzuetan baian ura ta ferretan ez (AN. Esteribar). Batzuekiko ain esku-zabal ta geien zor dienekiko ain esku-motz, esateko.

Ezta pirusat ere eztut (AN. Esteribar). Txanponik ere eztut.

Zartagie eskutik; baño txingarra bestek yaten (AN. Esteribar). Jabe naiz, baño bestek (andreak edo) jaten.

Ik eraman duk nere zura. —Ez. —Bai. —Ez-ba; nere manduak arrastan (AN. Esteribar).

Nai, ta izan (AN. Aurizperri). Diru-zale izan, eta dirudun egin.

Orrek mia, bere lekuau dauke (AN. Aurizperri). Itzlari zorrotzaz.

Esne guti ta arresto anitz (AN. Aurizperri). Asko irabazten.

Aizea, negu (G. Zegama).

Ostielean ez lan berririk asi (G. Zegama). Ezkontza ez egiteko, aragirik jan etzitekelako.

Pittiri danbolin; guzioi jotzen digu soñua berdin (G. Orexa). Legorteak gosea guzientzat.

Gu beartu ezkeroz, itsasoan ere ez litzeke urik izaen (Larraun).

Loreak galdu zizkigun zain da muin (AN. Larraun).

Azpi-jana bestek eiten dio (AN. Larraun). Bestek ostutzen edo gezurrez galtzen.

Atorraren ezin kabittuz ago (AN. Larraun). Ain guri!

Goseak dagonak, begia erne (AN. Madoz).

Largaizkin ona pasaazi dio (AN. Larraun). Ikaraldi latzena.

Nai ba-duk ongi bizi, bezperako apari(a)k, biramoneko utzi (AN. Larraun).

Biarkoa etziko, ala ongi biziko (AN. Etxaleku).

Oolloak etekin aundia ematen dizue (AN. Arraras). Irabaz-bide aundiak ematen.

Apezaren etxearen iru eluze; aiek onak; Nekazarrien etxearen bat aundia (AN. Arbizu).

Zerengar ekarri dut; eta bearrik (AN. Erro ta Esteribar). Bada-ezpada ekarri.

Zerengar etorri naiz (AN. Erro).

Atzeko laakua yo-ta gelditu (AN. Esteribar). Ezin geiago-ta gelditu.

Meko egin. Gauza bera, toki berean.

Mukua darion surra ezten lotsa (AN. Erroibar). Mukia darionak lotsarik eztu.

Emoten boat mokoko at, bolbakarka botakoat (G. Villarreal). Ematen ba-diatic... Zilipurdika botako aut.

Karmendu nau, ta karmen aundiak eman dit (G. Arrasate). Kalte egin ta kalte aundiak.

Esne au garminduik dago; karroka gustorik eztauka baño (G. Arrasate). Erre-kerua dauke esneak; baño ondarreko erre-kerurik ez, esateko.

Urte guziko lana ta urte erdiko jana (G. Arrasate).

Belea egon zan adarrean taloa igurtzi-ta jan zunak, pozik bustiko zin or (G. Arrasate).

Amaika beakatz salda eder jan da zoaz, koipe asko ezpazuen be, gatz-puntu ederrian (G. Arrasate). Neskame zijoanari esana.

Berea beretako; ta besteana, erdibana (G. Larrino).

Su ta salda, or ari da (G. Deba). Atsegíñez ari da lanbide ortan. Nonbait, buru-helarri ari da, ere esaten da.

Orrek jaroyan tutu repetaña! (G. Eibar). Kaskarin arro-utsaz esana.

Bakotzek bere etxie garbi zala (AN. Goldaraz). Bestenetan zer sarturik eztago.

Udan langillik nai ttunak, negun txakurrek mantentxela (AN. Goldaraz). Berak egin lezakena, bestekin egiten dunak, ondoreko kalte.

Etxe utsek, arrautsek (AN. Goldaraz). Kalte utsik egotea.

Goiz jeki, goiz gose; berandu jeki, loz ase (AN. Osakar).

Ogeita-amarreko ederra izan dugu (AN. Basaburua). Bazkari ona izan.

Edurraren gañeko egua, ezda izango berua (B.).

Kentzen ba-ditu eguz, juan dira leguz (B.). Egoak daramazkin elurrak, urruna.

Kentzen ba-ditu euriz; etorriko dira berriz (B.).

Gaitz zarra? Aje txarra (AN. Oderitz).

Napar apaizak, iputz-iztupez atorra; iputz apaizak, napar-iztupez atorra (AN. Larraun). Laxterka esateko, esan zail xamarra.

Bizkorragoa, indarrez baño mingañez (AN. Madotz).

Beren arra ba-due (AN. Olazti). Berezko uts-arteen bat, ergel kutsua edo ba-dute.

Bururik ez, ta txapela nai (AN. Larraun). Dagokion baño geiagoko gauza nai lukenaz.

An ere antzarak mokoaz ala (G.). *An ere txakurrak ortotsik* (AN. Esteribar).

Aoan gurutze utzi naute (AN. Basaburua). Ago bete ortzakin utzi dute, bezala.

Txanpon txarra, etxera biur (AN. Larraun). Balio eztuna, etxera bear.

Madalen astea bero? Agaka gero (AN. Azpirotz). Gaztain urte ona, esateko.

¿Ze ari zera or, ulikerietan? Ta zure etxea, galdetan (AN. Etxaleku). Berriketalarriari.

Alperra, beti gazte (G. Plenzia).

Ur orotan edari, borda orotan zaldari (AN. Urdazubi). Atsegigarri guziek billatzen ditunaz esana.

Astoa langan bezala, ez aurrea ta ez atzea (AN. Madoz). Zer egin eztakiela gelditzen danaz esana.

Norat iguzki, arat buzurki (BN.).

Etzegon astoa loiean (AN. Larraun). Eztaupek arrapaturik!, bezala.

Akerren buztarpean aterpe gutxi (AN. Larraun). Olako edo alakotandik zer itxoin?

Orpo gorri asko dauzka (B. Eguzkitza euskaltzainak emana). Aur asko ditu esateko.

Arpegi ikustea egin dute (G. c.). Ezkongaiak alkarrak ikusi dute, esateko.

Etxean daukenak, eztauke erosienik (zer erosirik) (B. Lemona).

Ardi ttipia, beti antxu (Landarretxe euskaltzainak emana). Eza, ezkongai gelditzen.

Milla urte eztira bear, milla gauza ikusteko (G.).

Zintzurra pattar, ta sabela ordoki (Landarretxe).

Larresorotarra zillarra; baño zittala (Landarretxe).

Larresoro, xipa zorro (Landarretxe).

Gillen; biar illen;

etzi eortziren;

ertzidamun ahautziren (Landarretxe).

Beste eittekoik etzunak, bere etxeari su eman emen zion (AN. Leitza).

—*¿Gizon ori zertan da? —Bereberean dago* (AN. Leitza). Eztu al-daketarik gaitzean.

Den lekutik eramatzen da, ezten lekure (AN. Leitza).

Zarrerie, bera da eritasun (AN. Lizarraga).

Eztago atsedenik,

Ta oidei gabe egunik,

Zeruetan baizik (Axular'en illobian, 1865'an). «Pedro Axular euskaldun eskribitzaldeatik iztun ederrenari, ni, Luis Luziano Bonaparte euskaltzaleak au ipini zion.»

Beti kalian? Izango da kezka sakelian (G. Deba).

Zeñekin egon, arekikoa (G. Ernani). Loxintxariaz esana.

Dana dala, Astigarragako alarguna (G. Donosti). Eztauket gogoan, esateko.

*Martin, tin, tin,
Errege ta sorgin,
tepule ta gatza,
Martin kalabaza (AN. Albiasu).*

Martxoko il tzarra; arrek eraman du nere beor zarra (AN. Goldaratz).

Otsaillek bereak, eze ta beak iar; Martxoak arpeti zelar; Apirillen larrie bete belar (AN. Goldaratz). Otsaillak bere izotzaz eze dagon guzia beko belarretaraño igartzen; Martxoak arpean dagona jaten; eta Apirillan larrua betetzeko aña belar.

Nerea neretzat, zurea biontzat (AN. Larraun).

Ogie ordañez; ordaintzen eztunari ezer ez (Goldaratz).

San Migel Il-berriko elurrek, neguko ta mayatzeañoko elurre (AN. Basaburua). San Migel eguna il-berri dala, elurra ba-dator. Negute gogorra ta luzea.

Eztut txotxik ere jaso (G. Mondragon). Eztut ezertxo irabazi, bezala.

Alkarren sendalaien dabiltz (AN. Araiz). Alkarren leian, ez-baietan dabiltz, esateko.

Martxoa karriken: Eman zoun arriken (AN. Arrarats). Martxo txarraren bukaeran esana.

Zenbat asto, ainbeste bizkar (AN.). Zenbat buru, ainbat iduru, nonbait entzun nun.

Ez on ta ez gozo (G. Orexa). Ez lanik eta ez aurreapiderik, esateko.

Jo ta ke asten da; baño gero, aotz galda (AN. Larraun). Alako gogoz asi, ta laxter deus ez.

Kandelerotza; neguaren biotza (AN. Ergoiena).

Euki gutxikoa da (G. Orexa). Eztaki gauzak ixillik gordetzen.

Orrek balantza bear du (G. Orexa). Zerk edo nork neurrian eutsi bearra du.

Nere buruan ala dago (G. Orexa). Nere ustez, ala edo ola da.

Arbi-lorea baño alperragoa aiz i (AN. Larraun).

Tximinitik doan kea baño alperragoa (G. Orexa).

Kutsua baño kuriosago (Lapurdi). Gau-ontzia baño garbiagoa.

Untzi-gibelean nindoaielaik begiztatu nun Lisboa (Lapurdi). Untzi-gibela, itsas-ontziaren azken aldea.

Zazpi negar egin bear du haur orrek (Lapurdi). Amaiaka negar, bezala.

Haur ori negarrez ari da, zazpi zakur aundi ondotik ba-litu bezala (Lapurdi).

Noiz ta nola (G. Orexa). *Noiz-nola* (Lapurdi). Ba-liteke, edo littekena da, bezala.

Ardi finari ileak zuritzen; zaharrari, erortzen (Lapurdi).

Orrek abotsa, ederki xaramelatzen du (Lapurdi). Gozo-gozo ematen du bezala.

Ijitoen ezkontza baño luziago (G. Mondragon).

jZer ixkixalda deallien! (AN. Baraibar). Orko iskanbilla, bezala.

Larrupe politta; baño ez ibillera (G. Azkoitia). Itxura ederra, baño ez biziera.

Orrek tximini ona du (AN. Larraun). Buru sendoa, argia, esateko.

Migel Mari'n etxean, Mari-Migel nagusi (Etxalar). Gizonak ez baño andreak agintzen.

Enea, enetako; ta bertzena erdiz (AN. Mezkiritz).

Otsalla, firili-faralla (AN. Mezkiritz).

April otz; ez gari t'ez agotz (AN. Mezkiritz).

Martxoan elurra nora artio, Aprillan lañoa arartio (AN. Mezkiritz).

San Matia; Erein truk axasia? Ik bilden truk aza aundiak (AN. Otxagabia).

Bat, bi, irur, laur; Irunberrin otso laur (Otxagabia).

Emaztia; i ez aiz ez zar t'ez gaztia (AN. Otxagabia).

Ekitxa ba-du tresna onek (G. Ormaiztegi). Zailtxoa da erabiltzen asmatzeko.

Aizkora oni akatxa egin zayo (G. Ormaiztegi). Puxkatxo bat joan zaio esateko. Lekunberrin, apustu egun batean. —Apustu eiñen niket, Arruiztarra, ikustea eterri aizela. —Zer pasatu al da? —Ziztu ona zeamak ba! *Irui zian, ego-aizearen egaletan ziela.*

Lañeza artu arte etzun eskurik ematen (G. Ondarrabi). Konfianza artu arte. Lañeza eman, eta.

Katuk desakarteak arrapatzen dizkit (G. Bedayo). Ez-ustean era-maten dit, bezala.

Il-biziko geldi zaite gurekin (G. Ondarrabi). *Bizi guziko bezala* (AN. Larraun).

Aos eskatu-ta baño geiago eman dit (AN. Madoz). Eskean joan banintzaio, etziran geiago emango, bezala.

Denbora pastuk, denai irabazten dio (AN. Larraun). Guziak zartzen eta ondatzen eta denbora aurrea joaten.

Jendea aixei ematen zaio; gaur jendea aixetu baita (AN. Larraun). Erraz alde jotzen dula baitago, bizitza ariñagoa nai.

Onek ausi-osoik eztu (AN. Larraun). Eztu erabakirik, bezala.

Erosi bezala saltzen dut (AN. Larraun). Entzun detena esaten di-zuet, bezala.

Txepeixa baño geiago gelditzen eztrena da (AN. Madoz). Aur biziaz esana (1).

Ardi zaharra baño prestuago (Lapurdi) (1).

Txoria bezin arin (Lapurdi) (1).

Begia bezen minbera (Lapurdi) (1).

Bidea, luze bezen zozo (Lapurdi) (1).

Gaua bezen illun (Lapurdi) (1).

Gaihua bezen zaila (Lapurdi) (1).

Khedarra bezen beltza. Phika bezen ergela. Phika baino ohoinago. Urde kaka bezen zikhina. Zartari zilhatua bezen gormanta. Ziria baino alferrago (Lapurdi) (1).

Gure etxeko andria nongo, gure aidiaik ango (AN. Eugi).

Egueldi onek orain ere erasan bear du (AN. Larraun). Euria daka, esateko.

Zure galtza-kordak izain du korapillo ori (AN. Berroeta). Olako oitura zere etxekoa izango dezu, esateko.

Ubaldiak, goiti eztu ekartzen zakarrak bertzerik (AN. Berroeta). Nabarmenkeria beitik etortzen zaigu, Iruña aldetik esan nai.

Zikoizkeria garaitzen, beraxtasunaz; bekaizkeria, maitetasunaz (AN. Erratzu).

Lur-otarra baño gibel audiago du orrek (G. Azkoiti).

Artzaie ta nekazarie, beti ikasle-berri (AN. Arrarats).

Eskerrik asko. —Iruñen ba-da etxe franko,

bakotxek berea artu ezkero,

ezta sobrako asko, asko (Larraun).

Martxoko ostosketa, berrogei eguneko ekaitz (AN. Madoz).

Ongi aizi ta gaizki ezi (AN. Madotz). Ongi erakutsi ondoren, gaiz-tatu egiten; edota, ongi aizi, naikoa emanez; baño gaizki ezi, lasai utziz.

Ezker eo eskuin, aukera zak zeozer; ausiosoi ik eztuk iñioiz artzen (AN. Larraun). Ausiosoa, itz politta, erabaki bat artzea edo, era bat alde batera edo bestera jartzea adierazteko.

Luzegarria ematea eldu naiz (AN. Etxarri-aranaz). Gauza bat ordaintzeko edo itzultzeko denbora luzatzea, esateko.

Gatza suan bezala irakiten yarri da (AN. Baztan). Su ta gar jarri da, esateko.

(1) Euskal-idazle ta izlari bikaña izan zan Elizalde Apaiz jaunak emanak ditut azkeneko esaera zar txoragarri auek.

Bereak ikusi ditu (AN. Baztan). Berak bakarrik daki zenbat era-man dun, esateko.

Gañak eman dizka neskamiari, ta ondasunak jan dizka (G. Mondragon). Uste onian neskamiari ate guziak zabalik utzi dizkio, ta guzia jan dio.

Kux-kuxean zegon, ta txakurrak eldu zion (AN. Iraizoz). Zeletan zegon, esateko.

Eskalea, kux-kuxuan egoten da (Ondarrabi). Zerbait onik emango zaiolakoan, zai.

Lapurra, kuz-kuzian (G. Ondarrabi). Nondik zer arrapatu.

Jaungoikoak eztitu argizarizko begiak (G. Ondarrabi). Besteri on ez-tena egiñez; edo bestez, on ez-tena esanez ari denari, esana.

Ardi zarra baño prestugo da (G. Ondarrabi).

Katuak zazpi ezpiritu ditula? Orrek geio ditu (G. Ondarrabi).

Gatza surtan bota-ta bezala da (G. Ondarrabi). Gatza sura...

Otsaila, katuen illa (G. Ondarrabi).

Zelataria, kontalaria (G. Ondarrabi).

Txerrimoniak ordañetan izaten dira (G. Ondarrabi). Ongi egiña, ongia artzeko bidia.

Eman ta kendu, zapoak aña kendu (Goizueta).

Etxaminen pian ezaundiko ute ori nor den (AN. Mezkiritz). Sukal-ondoan jakingo dute, esateko; edo ez-ta ezaguna.

Aur zutie ta zar zutue, beti aur kontue (AN. Mezkiritz).

Mezkiritz ta Olonditz; ogi guti ta aur aunitz (AN. Mezkiritz).

Orren eltziai, esnia iaritzen ez (AN. Mezkiritz). Zikotzaz esana.

Baztandar tuku-tuku; Kolkuan milla marra ku-ku (AN. Mezkiritz).

Aizu, kapazo; gaizki esan da, ongi arzazu (Basaburua).

Garbitu nau, xautu nau. Nitun guziak irabazi dizkit, bezala (AN. Basaburua).

Egiñai dagokiola il bear luke kristauak (G. Orexa). Nork bere eginkizunak betetzea, gauza aundia.

Goldaratz; asko jan, ta lana latz (AN. Larraun).

Azpirotzen elurra dagonean, aizea otz; eguzkie dagonean, bero; az-piroztarra beti ero. Bertako batek esana.

Jaunak egunero emanak eztizkiogu aitzartzen (AN. Ezkurra). Eztizkiogu kontuan artzen.

Ezkurreko xalkorra baño geiago ez aiz azitzen (AN. Madotz).

Seme; lan egin zak, beti bizi bear baiu bezala; ta gaur il bear baiu bezala bizi. Olaxe esan zion ama batek bere semeari (AN. Latasa).

Zirritutik kirikeka dago (AN. Baztan). Zirritutik begireka, bezala.

Errekiste aundiko gizonak, eztu umekeririk bear (AN. Baztan).
Izen aundiko gizonak.

Alozak egiñik dauzke gizenez (AN. Baztan). Bilgunek egiñik, lepo ta lepondoan.

GIZONAREN IZAKERAZKO ITZAK EDO IZENAK

- Allrau*, Gente floja, abandonada (AN. Larraun).
Aizkor, Espantadizo (AN. Erroibar).
Aizkortsu, Bastante espantadizo (AN. Erroibar).
Amultsu, Noble, bondadoso (AN. Lizarraga).
Apal, Humilde, 2.º, bajo, de poca estatura (AN. Baztan, Esteribar, Erroibar).
Astofaldun, Vanidoso (AN. Aezkoa).
Atsanki, Tranquilo, suave (AN. Aezkoa).
Basa, Inculto, selvático (AN. c.).
Besteko, Vecino (G. Azkoiti).
Baxtarta, Hijo natural (AN. Aezkoa).
Bereusteko, Presuntuoso (AN. Larraun).
Betzal, Aficionadísimo sea al vino, sea al juego, etc. (AN. Esteribar).
Egoskor, Testarudo (AN. Larraun).
Elealjer, Inoportuno en el hablar (AN. Baztan).
Elbiexa, Insustancial (G. Astigarraga).
Eleeder, Elocuente, bien hablado (AN. Baztan).
Eleketari, Chismoso (AN. Baztan).
Eleme, Insustancial (AN. Baztan).
Eletzu, Hablador (AN. Baztan).
Enakotx, Enano (AN. Ezkurra).
Erraza, Comodón, flojo (AN. Ergoiena).
Erdoil, Roñoso (AN. Esteribar).
Errazalde, Comodón (AN. G. c.).
Erruiñe, Mal genio, cascarrabias (AN. Madoz).
Etxekona, Vecino (G. Azkoiti).
Eskuxuri, Mal trabajador, holgazán (AN. Baztan).
Exkalu, Insustancial (G. Zumaya).
Eleurdin, Procaz, deshonesto en el hablar (AN. Baztan).
Erruesa, Iracundo (AN. Leitza).
Gartza, Sobrio (AN. Baztan).
Gaitzets, Aborrecido, (AN. Esteribar, Baztan).

- Gibel-aundi*, Cachazudo (AN. G. c.).
Gibel-jale, Murmurador (AN. Etxalar).
Iberra, Cariñoso (AN. Aezkoa).
Ilupe, sin fundamento (AN. Baztan).
Inestille, Remedador (AN. Baztan).
Itz-motel, Tartamudo (AN. Larraun).
Itzmotelkalarí, Fingidor de voz, o remedador (AN. Leitza).
Juan-abastu, Derrochador (AN. Baztan, Erroibar).
Kalfar, Fanfarrón (AN. Aezkoa).
Kali-arro, Fanfarrón (AN. Aezkoa).
Kale-zale, Callejero, (AN. c.).
Kaskallu, Iracundo, cascarrabias (G. Zumaya).
Kaxoya, Linfático, sin sangre (G. Zumaya).
Kotorro, Reciote, fornido (AN. Leitza).
Fazoneko, Bonachón (AN. Baztan).
Lasuna, Astuto (G. Zumaya).
Lekeda, Pesado, aburridor (AN. Baztan).
Logi, Flojo, inactivo (AN. Baztan).
Luxenga (AN. Esteribar).
Mari-ausarki, Despilfarradora (AN. Aurizperri).
Mena, Dócil (G. Eskoriatza).
Merkola, Avariento (AN. Baztan).
Mari-mutil, Desvergonzada (AN. c.).
Mutiri, Descarado (AN. Baztan).
Nakaitz, Cicatero (AN. Baztan).
Naka-zale, Burlón (AN. Leitza).
Ollo, Cobarde (AN. Larraun, Basaburua).
Oñezko, Peatón (AN. c.).
Olarru, Peje, pillastre (G. Zumaya).
Okela, Bizco (AN. Baztan).
Ozkinzale, Mordaz (AN. Etxalar).
Papartza, Chismoso (AN. Baztan).
Pelenda, De mala traza (AN. Baztan).
Pinpirriña, Niña coqueta, muy adornada (AN. Larraun).
Saltajauzikó, Amigo de fiestas y bulla (G. San Sebastian).
Pozoindua, Cascarrabias, iracundo (AN. Baztan).
Puxun-utsa, Avinagrado, mal genio (G. Azkoitia).
Sendor, Pesado (AN. Bera).
Sopin, niña agraciada, bonita (AN. Aezkoa).
Sorgin-orraxexe, Niño mimoso (G. Azkoitia).

- Sutaya*, Herrero (AN. Aezkoa).
Sumarra, Fogoso, violento (AN. Baztan).
Tankurrun, Persona de andar flojo, decaído (AN. Baztan).
Tekela, Latoso (AN. Baztan).
Topor, Pequeño y gordo (AN. Lakuntza).
Tutulu, Tristón, decaido (AN. Aezkoa).
Txakunperri, Ladronzuelo.
Txartxirote, Maléfico, vengativo (AN. Ultzama).
Alkezungarri, Vergonzante (AN. Ultzama).
Filuse, Adulador (AN. Baztan).
Txepel, Linfático (G. Zumaya).
Txinpara, Sin fundamento (AN. Madotz).
Txatal, Sin fundamento (AN. Errazkin).
Txuskun, Seriote, brusco (AN. Larraun).
Uli, Sin fundamento (AN. Baztan).
Ufestue, Corrompido, degenerado (AN. Baztan).
Xingill, Enclenque, debilucho (AN. Baztan).
Zakuzar, Hombre corrido, de trastienda, no malo (AN. c.).
Zaldizko, Caballero, rico (AN. Ultzama).
Zimarroya, Perspicaz, observador (G. Zumaya).

Bearrezko oarra

Nik bialdutako itz auetatik baliteke zenbait edo geixago argitaraturik egotea. Bear bada neronek len, *Revista Internacional de Estudios Vascos* zeritzionean argitara emanak izatea. Baño ba-da ez-pada, nere kuedernotan galtzen uztea baño obe iruditu zait zuri bialtzea.

An ez-ba-leude ere, Muxika Aitaren Iztegian egon litezke.

Intzar Damaso An.

Bainan kasu hortan hitz luze berriak erro edo sustrai labur zaharretarik ateratu badira, bertze aldi zonbaitetan eratorpena gibelka gertatu zaiku.

Frantsesez, konparazione, *crier, appeler, guetter* aditzak aditz arrotz batzuen aldakuntzak baizik ez dira: *quiritare, appellare, guatare*. Bainan frantseserí iduritu zaiote, -er aditz-atzizkia kenduz, aditzaren sustraia atxeman zezaketela, *jardiner* aditzetik *jardin*, *griser* aditzetik *gris*, *chanter* aditzetik *chant* aurkitzen zuten bezala.

Berdin gertatu zaiote Eskualduneri, ipar-aldean segurik. Ohartu zitazken *kantu* izenari bazatxikola *kantatu* aditza, *usu-ri usatu*, kexu-ri *kexatu*: eta hortik gogoratu bide zaiote aditzetik *-tu* atzizkia kenduz eta lehen zati-azkeneko *a* bokala *u* bokalaz trukatuz, kausitzen zutela aditzaren sustrai edo erro garbia.

Horrela sortu ditazke hitz berri andana bat. Adi-bidez:
Manex-ek jalgi dute:

Aipatu-tik aipu; balakatu-tik balaku; bortxatu-tik bortxu; debekatu-tik debeku; manatu-tik manu; perekatu-tik pereku; kanta-tu-tik kantu; enplegatu-tik enplegu. Xiberotarrek: *parkatü-tik parkü; pakatü-tik pakü; oküpatü-tik oküpü; elikatü-tik elikü; arranjatü-tik arranjü; ephantxatü-tik ephantxü.* Gisa berean denek:

baliatu-tik balio; abiatu-tik abio.

Aipatu ditugun aditzak erdaratik hartuak direlakoatz, ikusten dugu nola diren hitz labur batzu luzetarik sortu. Jakingarri litake, ea eskuara jatorrezko hitzekin gauza bera gertatu denetz: bainan hortako behar ginuke jakin hitz labur eta luzeak zoin noizkoak diren; heien sor-paperik ez duguno, nola erabaki, ala *xehe xehatu-tik* heldu denez, ala *xehatu xehe-tik*?

Haatik Lapurdi, Baxenabarre eta Zibero eskualdetan, gibelkako eratorpen bat hauteman dezakegu, toki-izenak doi-doiako bat aldatu dauzkuna.

Ohartzeko da gure eskualkietan aspaldi danik ez dela herri-izen bihirik kontsonante batez bururatzen.

Lehenagoko idazkietan oraiko Biarritze, Uztaritze, Azkaine,

Donazaharre eta holako bertze toki hainitz azken bokalik gabe zauden. Nola dira bada *e* batez luzatu?

Itxuren arabera «lokatibo» kasuetarik bildu dute luzagailu hori. Maizenik «lokatibo» gisa zerabiltzaten izen horiek, erranez: «Uztaritzen bizi da, Uztaritzera noa, Uztaritzetik heldu naiz»; eta nola bokalez bururatu izenen sustrai edo erroa atxemaiten baitzuten *-n*, *-tik*, *-rat* atzizkiak kenduz asmatu dukete, Uztaritzeko *e* delakoa ez zela betegarri bat, bainan izen-ginharriari datxikon ekeia, hala nola Arnegiko *i*, Haltsuko *u*, Erromako *a*, Mendiondoko *o*, edo Uharteko *e*.

Berdin gertatu zaiote etxe-izen zonbaiti. Baginituen etxe batzu jabearen izenaz bataiatuak. Erraiten zioten hastapenean *Jakesena*, *Mixelena*, *Apezarena*, adi-arazteko *Jakesen*, *Mixelen* edo *Apezaren* egoitza zela. Bainan izen hauk «lokatiboa» erabiltzen ziren ardurenean: *Jakesenetik*, *Jakesenean*, *Jakesenerat*, *Jakeseneko*: eta atzizki aintzineko *e* hori lotu da sustraiari; hortik sortu dira etxe-izen berri batzu, hala nola *Jakesenea*, *Mixelenea*, *Apezarenea*.

Huna bitziagoko bi kasu. Ziberoko *Bost-mendi* bilakatu da *Bostmendieta*.

Milafrangako eta Bidarteko bi auzotegik Behereharta dute izena: jendek *bebere hartan*, *beheren hartarik*, *bebere hartarat*, *bebere hartako erran-erak* aditzearen bortxaz, gogotik galdu dute «nominaliboa» *bebere bura* zitakeala eta *bebere harta* hitz bakar gisa derabilate.

Hona bada nun ikusi dugun ipar eskualkietan gibelkako hitz eratorpen batzu hauteman ditazkela, erdaraz erran baiginezake «des cas de derivation regressive».

Jahingarri litake ea hemen gaindi baduzuen deus ere holakorik.

P. LAFITTE

ESAERA ZARRAK

Mingañen eztu aririk (Leitza).

Mingañean eztu erdoiyik (AN, Intza).

Aldena, itxasoan den arraik obeena (AN, Beramendi). Al dena egin ezkerro, ongi da.

Ezta bearra bezalako mutillik (AN, Beramendi).

Or-konponek etxea galdu emen zun (AN, Beramendi).

Bururik ez; ta txapela nai (AN, Uitzi). Nai lukenerako bururik eztunaz.

Oraindik jantzi gabe zeunden? (G, Orexa). Edo; etziñekin ori?

Agoan gurutze, utzi naute (G, Orexa). Ezer gabe.

Yara aundikoa da (AN, Uitzi). Importantzi aundikoa.

Madalen astea bero: gaztañe aro (AN, Aldatz).

Or orotan, edari; borda orotan, zaldari (Lapurdi). Lizun, lotsagabeaz.

Zakarditik atera ta sasin sartu (AN, Eratsun). Bide okerretik atera, ta okerragoan sartu.

Onduntxe nere gogoetatik atera nintzen (AN, Uitzi). Gogo guzia galdu nun esateko.

Nor bere onetatik atera (AN Uitzi). Asarretu .

Goian zerue ta beian lurre zuela utzi (AN, Uitzi).

Ez Jainko t'ez lurr (AN, Utzi). Osotara galduaz esana.

Zarpa oneko belarra da ori! (Ikaztegieta).

Aize-orratza bezin itzul-inguru (G. Ikaztegieta).

Zakur salatie da ori (AN Lakuntza). Erne ta ots-egille danaz; gi-zonezko edo zakurraz.

Ez lukainka ta ez mustur (G. Ikaztegieta). Ausiosorik eztuna edo ta ezer balio eztuna.

Goikoak eta beikoak ibili (G. Ikaztegieta). Nastzalleaz.

Ainbestekotxoa da ori! (G. Ikaztegieta). Ain gutxi balio duna, esateko.

Ezek eta igarrak jan (G. Ikaztegieta). Zun guzia ondatu.

Norata eguzki; arata beroki (AN, Esteribar). Norata ezkurre; arata txerrien muturre (AN, Esteribar).

Ire aurre ezi-ezak egungo aragiz, atzoko ogiaz ta juandan urteko arnuaz (AN. Luzaide).

Ixillik; guziek dakitela egiten du (G. Andoain).

Bebilitz here eskuko (AN Etxalar). Gogoak ematen diena egin dezatela.

Emen oetako aldiak egin ditu (G. Ikaztegieta). Ondatu da emendik, bezala.

Deus ez. Begien atsegin da; baño poltsan ez (AN Arruazu).

Arantza zurin lorea; arto egiteko florea (G. Ormaiztegi).

Arantza beltza loratzen; arrazoya zabaltzen (G. Ormaiztegui). Arra edo arrea lurr elkorra apurtzen.

Izain ona duk ori! (AN Arruazu). Besterena jateko ona danaz.

Izpi oneko umea aiz i! (G. Goierri).

Garizuma aurretik, garizuma atzetik; garizuma beti bustiya (AN, Arruazu).

Gauen parrandan? Egunez lo-gure (G. Oñati'n).

Goazen, goazen oatzera; goizean jekiko gaittun ardatzera. Gauden, gauden oatzian; gauen egingo diñau ardatzean (AN Larraun).

Bat bestün lotsaik eztu-ta (AN, Madotz). Gaitz besteari erraz erasten zaiola.

Oyartzun: Pareta zarrak erantzun (G.).

Gaur San Estebantxe: emetik aurrera len antxe (G. Aretxabaleta).

Ik, ez? Nik ez! (An, Madotz). Ez ik, eta ez nik.

Txoroa! Alain txoroa! zurtuko aiz bai! Eraska baldim ba-zen, zurtuko zen bai ederki (AN. Araitz).

Asto zarra mukizu! malizi asko dakizu (AN, Araitz).

Erio suarr dago (AN, Esteribar). Erietz aurreko ezin egonarekin edo.

Dominus vobiscum, ez emen zian goseak il (AN, Madotz). Apaiz egin ezkeroz biziala izango dula.

Besteren beatzarekin zulotik muskarra atera (G.). Zallena besteri eginazi.